


Batzen gaituzten hiru helburu



Akordioa

Bizikidetasun akordioa
eraikitzeko hausnarketak eta
proposamenak


Lokarri
Akordioaren eta kontsultaren
aldeko herritarren sarea

2006ko azaroa

Egilea: Lokarriren Koordinazio Batzordea
Argitaratzen duena: Lokarri
Inprimaketa: Antza
Lege gordailua SS-1255/06

araba

Arana, 7- 7 01002 Vitoria-Gasteiz
tlf. 945 25 61 76 fax. 945 28 00 97

bizkaia

Venezuela Plaza, 1-1. 48001 Bilbo
tlf. 94 435 51 17 fax. 94 424 47 24

gipuzkoa

Portuetxe, 39-2. 20018 Donostia
tlf. 943 000 600 fax. 943 000 603

nafarroa

Francisco Bergamin, 2-3. 31002 Iruñea
tlf. 948 22 71 22 fax. 948 22 36 39

info@lokarri.org

www.lokarri.org

Aurkezpena

Aspaldiko desfiorik handienari ekin dio euskal gizarteak: bake eta normalizazio-prozesua eraiki eta gartztea, horrenbeste urtetako oinaze, sufrimendu, egonezin, tirabira, inkomunikazio eta bazterketa behingoz gairiditzeko. Duela urte-erdi inguru, Akordioaren eta Kontsultaren aldeko herritarren sarea, Lokarri, sortu genuenean hain zuzen ere, adierazi genuen zer eginkizun nagusi duen gure herritar-mugimendu honek:

Lokarrik aldeak elkartzeko balio behar du, bazterketarik gabe eta garaile eta garaiturik gabe, konponbide prozesuan. Lokarriren eginkizuna, beraz, aldeak elkartzeko balio duena izatea da, zehazki, akordioaren, herri kontsultaren eta berradiskidetzearen proposamena batasun eta integrazio sozial eta politiko faktore bihurtu.

Lokarriko kideek uste dugu badirela gure gizartean adostasun handia eragiten duten hiru helburu, egoera politikoa eta etorkizuna begiratzeko ikuspegia edozein dela ere: akordioa, kontsulta eta berradiskidetzea. Sei hilabete igaro dira ETAk su-etena aldarrikatu zuenetik; tarte horretan, bake eta normalizazio-prozesua aurrera eramateko zer zailtasun dauden ongi asko ikusi du euskal gizarteak. Kontraesanez beteago dago prozesua: aurrerapen izugarriak dakarkigu batzuetan; beste batzuetan, aldiz, blokeoguneak eta krisialdiak. Eragile sozial eta politiko bakoitzak dauka bere proiektua, prozesurako bere ibilbidea. Baina, diferentzia horien guztien gaineratik, badago bake eta normalizazio-prozesuaren aldeko gehiengo sozial eta politikoa. Herritar-kontsulta batek berretsi behar du akordioa, gure iritziz, eta gizartea berradiskidetzeko abiapuntu izan behar du.

Hiru helburu horiek (akordioa, kontsulta eta berradiskidetzea) gidatu behar dute, bada, bake eta normalizazio-prozesua. Horretarako, borondate sozial eta politikoak bildu behar dira, helburuak lortzen lagun dezaten. Helburuekin bat etorri gero, elkarrekin lan egin ahal da bake-prozesuaren oztupoak gairiditzeko eta gure gizarteak hain premiazkoa duen adiskidetze-giroa sortzeko.

Hiru helburu horiek plazaratzen eta aldarrikatzen jardungo du Lokarri 2006-2007 ikasturtean. Horretarako sortu zen gure erakundea, eta horretan arituko gara buru-belarri. Hiruhileko bat eskainiko diogu helburu horietako bakoitzari. Lehenbizikoan –2006ko udazkena–, Akordioa izango da nagusi. Horrekin batera, hiru argitalpen plazaratuko ditugu: lehenbizikoa hauxe dugu; bigarrena “Kontsulta” neguan argitaratuko dugu, eta, hirugarrena “Berradiskidetzea”, udaberrian.

Akordioari buruz Lokarri duen irizpidea azaltzen ahaleginak egiten du argitalpen honek. Ohartuko zinetenez, ez du elkarriketa-prozesuaren amaierako akordioa zehaztasunez diseinatzen, baizik eta akordioa eraikitzeko zenbait hausnarketa egiten. Horrekin batera, akordioari buruz ditugun zenbait ideia okerrei ekin nahi diegu ere argitalpen honen bidez.

Azken batean, ideiak eta kontzeptuak argitzeko tresna gauzatea bilatzen du gure argitalpen honek, etorkizunaz hausnartzeko eta gure gizarteak hasia duen bake eta normalizazio-prozesu zirrargarri honetan parte hartzeko lanabesa.

1. Akordioa, zertarako?

“Akordioa, zertarako?” Horra akordioa zer den zehazteko erantzun behar dugun lehenbiziko galdera. Azken hamarkadotako Euskal Herriko egoera politiko eta soziala aztertuz egin beharreko lana dugu hori. Hitz bakar batekin azaldu beharko bagenu gure gizarteko elkarbizitza, “desadostasuna” litzateke hitz hori.

Indarkeriak eta elkarbizitza politikoko esparruari buruzko desadostasun larriek giza eskubideen urratzea, ezinegona, tentsioa, komunikaziorik eza eta bazterketa ekarri dituzte euskal gizartera. Hori dela eta, ezin izan dira bake bidez eta demokratikoki konpondu elkarbizitzaren arazoak. Askotarikoa da euskal gizartea izate sentimenduari edo nortasun nazionalari, hizkuntzari eta politikari. Bistakoa da, bestalde, egungo elkarbizitza-esparruak ez daukala behar hainbateko adostasun edo babes soziopolitikorik.

Funtsezko elementua da desadostasun hori, gure elkarbizitzari larriki eragiten diona. Gizarte moderno orok behar ditu behar hainbateko adostasuna duten elkarbizitza-printzipioak, arazoak bake bidez eta demokratikoki konpontzeko. Desadostasunaren eragilea nor den alde batera utzita, kontua da euskal gizarteak ez daukala bitarteko adosturik bere barne aniztasuna behar bezala onartzeko.

Hori dela eta, elementu hauek ditu akordioaren aldeko Lokarriren apustuak:

- Gure elkarbizitzaren oinarriko printzipioak finkatzeko akordioa, bereizten eta elkartzen gaituena bake bidez eta demokratikoki kudeatzeko, iraganeko akats berberak egin gabe.
- Akordio plurala behar du izan, gure gizarteko korrante eta joera soziopolitiko guztiak ordezkatzen dituen. Ahaleginak egin behar dira akordioa aho batezkoa izan dadin; ezin bada, zehar akordioa eta gehien zabala egiten saiatu behar da. Azkenik, akordioa ezin bada ez aho batezkoa ez zehar-kakoa izan, herritar-kontsulta egin behar da blokeoa gainditzeko. Bestalde, hasieran izenpetzen ez dutenak ere berehala hara biltzeko modukoa izan behar du akordioak.
- Ordenamendu juridikora eraman behar da akordioa, asmo onen adierazpen huts bihur ez dadin eta legearen ahalak babes dezan. Bestalde, akordioak berak zehaztu behar du zeregin hura aldatu edo egokitze.
- Denok irabazi behar dugu akordioarekin; inork ez du galtzaile izan behar. Denon garaipena izan behar du: aniztasunaren, berdintasunaren eta printzipio demokratikoen garaipena. Guk nahi dugun akordioak denak sentiarazi behar ditu garaile, inor ez galtzaile.
- Herritarrek berretsi behar dute akordioa, kontsulta bidez.

Azkenik, alde batera utzi behar da “akordioak arazo guztiak konpontzen ditu” edo “gatazka guztiak ezabatzen ditu” dioen ustea. Gizarteetako elkarbizitza ez da inoiz perfektua, are gutxiago gurearen ezaugarriak dituenetan. Akordioaren helburua, hain justu ere, desadostasunak modu konstruktiboan kudeatzea da, orain arteko eredu suntsitzaileei bizkar emanez.

Belgikako kasua

Belgikako gizarteak ere badu bere bame-gatazka, baina modu konstruktiboan kudeatzen asmatu dute. Hiru komunitate bizi dira Belgikan: waloia (hizkuntza, frantsesa), flandestarra (hizkuntza, neerlandera) eta alemana (oso txikia, aurreko biek alderatuz gero). 1960ko hamarkadan, tentsio politiko nabarmena izan zuten Belgikan, flandestarren eta waloniarren arteko gorabeherak zirela eta. Egoera hura gainditzeko, hainbat aldaketa egin dizkiote konstituzioari (1970, 1980, 1989 eta 1993an). Aldaketa horiei esker, estatu batasunzale izatetik estatu federal izatera igaro da Belgika. Bi botere-maila berri tartekatu

zituzten estatuaren eta probintzien artean: Komunitateak eta Erregioak. Hizkuntza eta kultura bera dutenek osatzen dute Komunitatea; Erregioa, berriz, irizpide geografikoen arabera da. Erakunde biak, komunitateak zein erregioak, waloiaren eta flandestarren nahiei erantzuteko sortu ziren.

Ez da perfektua Belgikako eredia, tentsioak (gatazka) ez baitira erabat ezkutatu, baina garrantzizkoena da elkarlanaren, bake bidearen eta bitarte demokratikoen bidez eratu dituztela konponbideak, eta akordio berriak egiten saiatzen direla.

2. Aurreko gaia: akordiora iristeko metodoa

Akordioaren atalak banan-banan xehatu aurretik, komeni da aipatzea, labur bada ere, zer metodo erabili akordiora iristeko. Helburu hori gauzatzeko baldintzei, helburu eta agendei, printzipioei, irizpide metodologikoei, egiturari eta prozedurei buruzko aurreakordioa eskatzen du, batez ere, akordioak. Laburrago esanda, alderdien mahaiaren funtzionamenduari buruzko aurreakordioa lortzea da helburua.

Ordezkarri politikoak dira herri-subiranotasunaren legezko hartzaileak; horrenbestez, haiei dagokie, batik batik, herritarren arazoak konpontzen ahalegintzea. Alderdiak dira, halaber, bizikidetzak-akordio bat lortzen gehien saiatu behar dutenak. Elkarrizketaz eta elkarlanaz baliatuz, alderdiek aurkeztu behar diote gizarte osoari arazoak bake bidez eta demokratikoki konpontzeko akordioa. Gizarteak, berriz, azken hitza izan behar du erdiesten den akordio horri buruz.

Alderdiek eurek lortu behar dute, bada, lehenbiziko adostasun hori, akordioa gauzatzeko lanen metodologia gidatzeko aurreakordioa alegia. Osagai hauek izan behar ditu aurreakordioak:

- 1- baldintzak, hau da, elkarrizketa-prozesua gidatzeko oinarriak: giza eskubide guztiak errespetatzea, aniztasuna, printzipio demokratikoak onartzea, eta aho batezko akordioa (edo zeharkakoa eta gehienien zabala) erdiesteko borondatea.
- 2- helburuak eta agenda, hau da, lortu nahi diren akordioak zein diren adieraztea. Akordio horien araberakoa izango da agenda.
- 3- alderdien arteko mahaiaren printzipioak, alegia, mahaiaren joko-arauak finkatu behar dituztenak. Hona hemen alderdien mahaiak aintzat hartu beharreko printzipioetako batzuk: indarkeriarik eta mehatxurik eza, inor ez baztertzea, elkarrizketaren eta akordioaren aldeko jarrera, elkarrizketa-mahaietako erabakiak aho batez hartzen saiatzea, proiektu eta helburu politiko demokratiko guztiak aintzat hartzea eta beto-eskubiderik ez erabiltzea.
- 4- metodologia-irizpideak, hots, alderdien mahaiaren lana arautu behar dutenak gai hauei dagokienez: moderatzaile, elkarrizketa-metodologia zehatza, gobernuen parte-hartzea, mahaien arteko koordinazioa (baldin eta Nafarroan bat eta EAEn beste bat sortzen badira), zer metodo erabili elkarrizketa blokeatuz gero...

Alderdien mahaiaren metodoa Ipar Irlandan

“Ground rules for Substantive All-Party Negotiations” (Alderdi politikoaren arteko negoziazioetarako oinarritzko arauak) txostenak lan-metodo jakin bat proposatzen zuen Ipar Irlandako alderdien mahairako. Hona hemen metodoaren alderdi aipagarri batzuk:

- txostenak zioenez, Ipar Irlandan, Irlanda osoan eta bi gobernuen artean (Irlandakoa eta britainiarra) bestelako elkarbizitza eraikitzea zuten helburu negoziatioek, baita bi gobernuen eta Ipar Irlandako erakunde berrien arteko harremanak eratzea ere.
- hiru gai horien arabera finkatu zen negoziatioen agenda eta egitura.
- erabaki zen Irlandako eta Erresuma Batuko gobernuetako ordezkariak hartzea parte negoziatioetan, baita Ipar Irlandan diharduten eta hauteskundeetan ordezkariak jaso duten

alderdiek ere, betiere bitarteko demokratikoak eta soil-soilik bake bidezkoak erabiltzea hitzeman badute.

- negoziatioak hasteko epea jarri zen, eta beste zenbait gai ere zehaztu ziren (azpibatzen lehendakaritza, prozedura eta akta-hartzeko sistema). Negoziatio-batzordeak non elkartu behar ziren zehaztu zen.

Oso bizia izan zen britainiar gobernuaren txosten horri buruzko eztabaida. Gainera, unionistak honen kontra egon ziren, eta Sinn Fein ez zuten gonbidatu IRAk berriro su-etenari ekin zion arte. Hain zuzen ere, metodoari buruzko adostasunak, 17 hilabeteko elkarrizketak suposatu zituen; akordioa berriz, 7 hilabeteko negoziatioak. Adibide honek erakusten digunez, metodoari buruz ados jartzea edukiari buruz jartzea bezain zaila izan daiteke.

- 5- elkarrizketaren egitura (hainbat batzorde sortu behar dira, mahaiaren funtzionamendua arina eta eraginkorra izan dadin).
- 6- prozedura-irizpideak, elkarrizketa-prozesuaren garapena atalez atal zehazteko.

3. Elkarbizitzaren oinarriko printzipioei buruzko akordioa

Gure arteko elkarbizitzaren oinarriko printzipioak finkatzeko akordioa, bereizten eta elkartzen gaituena bake bidez eta demokratikoki kudeatzeko, iraganeko hutsegite berberak egin gabe.

2004ko maiatzetik 2006ko martxora bitartean Elkarrik bultzatu zuen Eginoko Mahaiaren ondorioen lehen puntuak hau zioen: adostasunak eta desadostasunak ditu gure gizarteak, eta normaltasunez onartu behar dugu faktore batzuek bereizi egiten gaituztela, eta, beste batzuek, elkartu. Akordioaren helburua da jakitea zerk elkartzen gaituen, bakean eta demokrazian bizi ahal izateko, bereizten gaituena modu konstruktiboan kudeatzeko eta, hartara, iraganeko hutsegite berak ez egiteko (indarkeria, mehatxuak, ezinegona, tentsioa, bat ez etortzeak...).

Akordioaren xedea da denok onartzeko moduko oinarriko elkarbizitza-esparrua eratzea. Oinarriko printzipio horiek dira gizarte ororen barne-aniztasuna kudeatzeko funtsezko euskarria, are gehiago nortasun-sentimendu ugari eta, batzuetan, bateraezineko gizarteetan (gurean, besteak beste).

Zerk bereizten eta zerk elkartzen gaituen aztertuz gero, oinarriko bost printzipio atzeman daitezke, guztiak ere akordio bateko osagai izan daitezkeenak eta gure historiaren azkeneko hiru hamarkadetan eragin nabarmena izan dutenak:

- Giza eskubide guztien aldeko konpromisoa. Ez da erraza ados jartzea indarkeria, mehatxu eta giza eskubideen urraketen ondorioez, baina badago ados jartzea pertsona guztien giza eskubide guztiei zor zaien errespetuaz.
- Berdintasuna. Nortasun sozial, linguistiko edo politiko ugari daude euskal gizartean. Segur aski, ezinezkoa da proiektu politikoei buruz ados jartzea, baina ez proiektu politiko demokratiko guztien zilegitasunaz eta guztiek baldintza beretan jarduteko duten eskubideaz, edo gure gizartearen aniztasuna zaindu beharreko ondareztat jo beharraz.
- Erabakitze ahalmena. Adostasunik ez dago euskal gizarteari Autodeterminazioa Eskubidea badagokion ala ez erabakitze, iritzi kontrajarriak baitaude eskubide horren jabetzaz (batzuen iritzi, badago eskubide hori gauzatzea dagokion Euskal Herri bat; beste batzuen iritzi, ez). Dena den, oinarriko bizikidetzaren printzipio bat erabil daiteke gai horri dagokionez: onartzea herritarrek badutela kontsultatuak izateko eta beren erantzuna aintzat hartzeko eskubidea, eta herritar gehienek babesa jasotzen duten proiektu politiko demokratikoak ordenamendu juridikoan islatzea.
- Aniztasuna aintzat hartzea. Euskal gizartearen aniztasuna, zaindu, babestu eta aintzat hartu behar da erabakitze eskubidea gauzatzean. Hala, erabakitze eskubideak bat etorri behar printzipio honekin: aldean artean akordioak egitea, eta alde bakarreko erabakirik ez hartzea.
- Harreman-esparruak. EAE, Nafarroa eta Iparralderen arteko harreman-esparruei buruzkoa izan daiteke azkeneko bizikidetzaren printzipioa. Lurraldetasunaz ez dago akordiorik ere ez, baina finka daiteke printzipio bat zeinak harreman eta elkarlan iraunkorra izateko eskubidea onartu, lurralde bakoitzaren erabakimena errespetatu eta hala nahi badute den artean erabakitze eskubidea aintzat hartzen duen.

4. Akordio plurala eta integratzailea

Akordio plurala behar du izan, gure gizarteko korronte eta joera soziopolitiko guztiak ordezkatzeko dituenak. Ahaleginak egin behar dira akordioa aho batezkoa izan dadin; ezin bada, zehar akordioa egiten saiatu behar da. Azkenik, akordioa ezin bada ez aho batezkoa ez zeharkakoa izan, herritar-kontsulta egin behar da blokeoa gainditzeko. Bestalde, hasieran izenpetzen ez dutenak ere berehala hara biltzeko modukoa izan behar du Akordioak.

“Hemen, den-denok gara beharrezkoak”. Esaldi horrek laburbiltzen du akordio pluralaren esanahia. Helbuna da gure gizarteko joera soziopolitiko guztiak hartzen dituen akordioa lortzea.

Izan ere, orain arte ez da zehaztu denentzako moduko akordiorik, baita hasieran sinatu nahi ez dutenentzako modukoa ere. Gizartearen zati bat kontuan izan gabe elkarbizitza eraikitzea bazegoela uste izan da, edo horretarako joera handia egon da behintzat gure historia hurbilean. Etengabe utzi du bazterrean gizartearen zati bat besteren batek, edo horretan saiatu da behintzat. “Etsaitzat” jo izan da norberak bezala pentsatzen ez zuena, eta horrekin justifikatu nahi izan da politikagintzatik baztertua edo baita akabatzea ere. Pentsaeraz aldatzea da egungo desafioa. Norberak bezala pentsatzen ez duenak beste proiektu batzuk ditu gizarte honetarako; horregatik, harekin elkarlanean jardun eta bizikidetzaren esparrua iritsi behar da, denok eroso eta gustura sentitzeko modukoa.

Akordio pluralaren asmo horren lehen aukera da aho batezkoa izatea adostasuna. Hori da helburu nagusia, ideala. Egia da oso zaila izango dela, baina horretara bideratu behar dira ahaleginak, alderdi politiko guztiek onartzen eta herritar gehien-gehienek berresten duten oinarritzko bizikidetzaren akordioa lortzea.

Aho batezko akordioa ezinezkoa bada, bigarren aukerari ekin behar zaio, zeharkako akordioari alegia. Horretarako, ez dira aski nortasun nazional bat ordezkatzeko duten indar politikoen gehiengo absolutua; beste nortasun nazionala ordezkatzeko duen indar politiko garrantzitsu baten –gutxienez– adostasuna ere behar da.

Beto-eskubidearen arriskua dakarte bi aukera horiek (aho batezko akordioak eta zeharkakoak), hots, gutxiengo batek etengabe blokeatu ahal izatea gehiengoaren proposamenak. Demokraziaren ikuspegitik, onartezina da hori. Hipotesi horretan, bi aukera ageri zaizkigu: 1) herritarrek eurek iritzia emotea eta alderdiek aintzat hartzea haien erabakia akordioa desblokeatzeko, edo 2) akordio-ezintasunak bertan beheara uztea alderdien arteko mahaia eta gehiengo-gutxiengo sistema abiaraztea, sistema demokratikoetan ohikoa dena alegia. Azkena aipatu dugun aukera horrek “politikaren” porrota lekarke (arazoak konpontzeko denon arteko elkarlanaren porrota), baina nahitaez utzi behar zaio atea zabalik. Izan ere, aho batezkoasuna edo zeharkakotasuna blokeo-tresnatzat erabiliz gero, oinarritzko printzipio demokratikoen gainbehera dakarte, eta, epe luzera, sistema demokratikoaren beraren hondamena.

Azkenik, pluralaz gain integratzailea ere izan behar du akordioak. Gure gizarteko korronte soziopolitikoren batek sinatzen ez badu, atea zabalik utzi behar diote sinatzaileek, geroago sinatzea erabakiko balu edo. Ezinbestekoa da iraganeko akatsak berriro ez egitea. Hutsegitea da, adibidez, uste izatea akordioa (zeharkakoa, esate batera) aldaezina dela “hain da baliotsua!” eta derri gorrean onartu beharra daukatela, bere horretan, harekin bat egin ez dutenek ere. Horrek ez du esan nahi lehentasuna ematen zaienik sinatzen ez dutenei, gutxiengoak behartu dezakeenik akordioa aldatzera gehiengo (zabala eta zeharkakoa). Proposamen horren xedea bestelakoa da: beti izatea gogoan merezi duela akordiora denak biltzeko ahalgina egitea. Etengabekoa izan behar du akordioarekin bat egiteko gonbitak, zintzoa eta argia.

5. Akordioa ordenamendu juridikora eramatea, eta hura aldatu edo egokitzea

Ordenamendu juridikora eraman behar da akordioa, asmo onen adierazpen huts bihur ez dadin eta legearen ahalak babes dezan. Bestalde, akordioak berak zehaztu behar du zer egin hura aldatu edo egokitzeko.

Zenbait juristak dienez, legearen itzalpean ez dagoena ez da existitzen. Ikuspegi askotatik, kritikatzeko moduko ustea da, baina akordioa zehazteko lagungarria. Ordenamendu juridikora bihurtzen ez den akordioak balio politiko handia izan dezake, baina, eraginkorra izango bada, legearen itzala behar du, borondate onaz gain.

Lege horren izaerari dagokionez, ez du balio nolanhiko legeak. Akordioak zehaztu behar ditu elkarbizitzaren oinarrizko printzipioak; beraz, oinarrizko esparru juridiko-politikora eraman behar da. Akordioak berak zehaztu behar du nola eraman printzipioak ordenamendu juridikora.

Bestalde, lortzen den akordioa berrikusi eta aldatzeko (egokitzeko) prozedura ere zehaztu behar du akordioak berak. "Gatazka" deritzona ez da behin betiko ezabatuko edo konponduko akordioa sinatze hutsagatik. Euskal gizarteak plurala dela eta izaten jarraituko duela, baieztatu dezakegu. Hortaz, bere horretan iraungo dute gure gizarteari edo etorkizuneko egiturazteari buruzko irizpide-diferentziek. Horrenbestez, akordioaren helburu bakarra da diferentzia horiek bake bidez, demokratikoki eta elkarlanean kudeatzeko oinarriak jartzea. Une jakin batean kudeatze-metodo egokia dirudiena, izan ere, desegokia izan daiteke handik urte batzuetara. Beraz, berrikusi egin beharko da akordioa, eta, hala badagokio, aldatu. Azkenik, akordioa eratzeko erabiltzen diren ideia eta helburu berberak izan behar dituzte gidari hura berrikusteko printzipio, metodo eta prozedurek.

Ostiral Santuko Akordioaren ardatz konstituzionalak

Bi ardatz konstituzional hauek zituen Ostiral Santuko Akordioak:

1.-Irlandako Konstituzioa aldatzeko aukera onartzen du akordioak; Ipar Irlanda Errepublikara biltzeko eskaria egokitu egiten du, alegia. Uhartearen batasun-kontzeptu berri bat aipatzen du Akordioak, herritarren borondatea oinarri harturik.

2.- Britainiar gobernuak, berriz, bat egingo du Irlanda batuaren aldeko lege-aldaketekin, baldin eta hala eskatzen badute etorkizunean Ipar Irlandako herritar gehienek. Akordioak berak daukan mekanismo baten arabera, Ipar Irlandarako estatu-idazkariak herri-kontsultak deitu ahal ditu, hainbatean behin, betiere herritar gehienek hala nahi dutela baderitzo.

6. Denok irabazle egingo gaituen akordioa

Denok irabazi behar dugu akordioarekin; inork ez du galtzaile izan behar. Denon garaipena izan behar du: aniztasunaren, berdintasunaren eta printzipio demokratikoen garaipena. Guk nahi du -gun akordioak denak sentiarazi behar ditu garaile, inor ez galtzaile.

Akordioaren edukia bezain garrantzitsua da, bestalde, alderdi politikoek eta herritarrek hari hartzen dioten tankera eta itxura. Akordioa iristen denean, alde guztiak sentitu behar dira garaile. Inor galtzaile bihurtzen ez duena, horra zer den akordio egokia. Denok izan behar dugu garaile, denok sentitu behar dugu garaile akordioarekin, eta gure elkarbizitzan aldi baketsuago eta demokratikoagoa hasteko balio behar du.

Ez da erraza, zenbaitetan, ikuspegi hori onartzea. Gogorra da hainbat urtez “etsaia” izan duzun horrek akordioa garaipentzat jotzea, baina ez dago beste biderik bermatzeko denok egingo dugula bat bizikidetzaz-esparru berriarekin. Bestalde, garaitu-sentsazioarekin geratzen bada inor prozesuaren amaieran, ez du luza-ro iraungo akordioak.

Ondorio psikologikoak ere baditu, gizartean, horrelako akordioak, denok garaile eta inor ez galtzaile sentiarazten gaituenak. Mugarria da akordioa, bi garai oso desberdin bereizten dituen muga: bata, atzean uzten duguna; bestea, etorkizun dagoena. Gure arteko diferentziak errespetatuz bizitzen ikasteko oinarriak jartzen ditu akordioak, iraganean gertatutakoa berriro ez jasateko zutoinak.

Azken batean, gizartea berradiskidetzeko lehen urratsa dugu denon akordioa, denok garaile sentiarazten gaituena, gure arteko elkarbizitzan etapa berri bat hasteko oinarriak ezartzen dituen. Desberdinen arteko elkarlan eta lankidetzaren ondorio izan behar du akordioak; hura lortu izanaren poza, berriz, desafio berriei ekiteko gure gizarteak behar duen bultzada sendoena.

Ostiral Santuko Akordioaren sinaduraren osteko erreakzioak

Ostiral Santuko Akordioa izenpetu ondoren Ipar Irlandako zenbait buruzagi politikok egindako adierazpenak ditugu horren adibide. David Trimblek, Ulsterreko Alderdi Unionistako (UUP) buruak esan zuen “garaipena da Akordioa, (Londresetik) lotura sendotzen baitu”. Sinn Feineko buru Gerry Adamsek, berriz, esan zuen “benetan bikaina da Akordioa. Zatiketarik

eta gatazkarik gabeko Irlanda bat dakusagu etorkizunean, bakean bizitzeko gai den gizarte bat”. John Humek, azkenik, hau esan zion Argentinako egunkari bati elkarrizketa-saioen atsedenaldirik batean: “Akordioa lortu genuen, eta orain letra txikia ari gara eztabaidatzen. Goizeko 3retan jarri ginen ados. Ez al da mirezgarria?”.

7. Ondorioa

Hainbeste urtetako desadostasunari amaiera emateko akordio bat lortzeko egin behar den lanak guztion ahalegina eskatzen du. Erakundeen, alderdi politikoaren eta herritaren erantzukizuna da bake eta normalizazio-prozesu hau aprobetxatzea, hainbeste desiratzen dugun gizartearen adiskidetzea lortzeko. Adiskidetze honetarako abiapuntua, sentikortasun politiko eta sozial guztiak aintzat hartzea da, eta horretarako egokiena, euskal gizarteko aukera politikoaren aniztasuna biltzea lortzeko duen adiskidetzarako oinarriko printzipioei buruzko akordioa da.

Gizarteak berak adiskidetzearen bultzatzailea izan behar du. Gizartearen bultzada eta parte hartzea nahitaezkoak dira. Gizarteak indarkeriarik ezaren eta bazterketarik gabeko elkarizketaren printzipioak, momentu txarretan ere sostengatu ditu, eta orain, guztien parte-hartzea mantendu behar da, prozesuaren helmuga akordioa eta herri-kontsulta izan daitezkeen.

Lokarri, akordioaren aldeko borondate politiko eta sozialak batu nahi ditu, eta bake-prozesuan parte-hartze zuzena eskaintzen du. Akordioa posible egiteko lagundu nahi dugu. Horregatik, interesa duen orok ekarpenak, kritikak eta iradokizunak emateko esparru bat aurkituko du www.lokarri.org webgunean. Eta horrekin batera, bizikidetasun baketsu eta demokratikoa lortzeko erronka handi honetan parte hartzeko prest dauden beste pertsona batzuekin konpartitu ere bai.

Herritarren berrespena

Herritarrek kontsulta bidez berrestuko lukeen akordioa.

Bilduma honetako hurrengo argitalpenean ekingo diogu gai honi, 2007ko urtarrilean. Argitalpen horretako gai nagusiak: 1) herritarren parte-hartzea akordioa lortzeko, 2) alderdien ma-

haien lortzen den akordioa berresteko herri-kontsulta, eta 3) herri-kontsulta ustezko blokeo egoeran.